



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Udal Harremanen eta
Herri Administrazioaren Saila
Departamento de Relaciones
Municipales y Administración Pública

001537

SUPUESTO PRÁCTICO 1

PARTE 1

Cierto ayuntamiento prevé el desarrollo urbanístico de una U.E. próxima a la intersección de las carreteras N-637 y BI-635. Considerando que el nivel de presión acústica en la actualidad para los diferentes períodos del día a 30 m del eje de las carreteras es:

Carretera	Ldía	Ltarde	Lnoche
N-637	56	58	48
BI-635	55	55	47

Se pide:

- ¿Cuál sería la presión sonora a 30 m de ambas carreteras en el punto intersección de ambas líneas de presión sonora para los diferentes períodos del día?
- En este punto, ¿se superarían los OCAs exigidos en la legislación acústica para las viviendas?. Indicar los niveles.

El estudio acústico considera una previsión de crecimiento del tráfico que se traduce en un incremento de los niveles de presión sonora a 30 m que superan los OCAs y, consecuentemente, se diseña una pantalla acústica de 340 m de longitud y 3 m de altura máxima. Se pide:

- Diseña el condicionado acústico y controles que impondrías al promotor de las viviendas relativas a la colocación de las pantallas.
- ¿Qué métodos de evaluación de las características acústicas exigirías al promotor en la definición de las pantallas?

PARTE 2

Un área bien conservada de Bizkaia, no incluida en la red Natura 2000, se pretende proteger limitando la explotación de sus recursos a los de conservación de sus valores ambientales. Se trata de un área de próxima a la costa de unas 500 ha en la que se mantiene una actividad de ganadería extensiva, que confieren al paisaje un gran interés por la integración de sus elementos. En esta misma área, en la que aparecen megalitos y otros yacimientos arqueológicos, así como una cueva con arte rupestre paleolítico, existen cuevas con murciélago mediterráneo de herradura y vegetación bien conservada (encinares cantábricos). Hay una cantera abandonada. Hay un área de aparcamiento y mesas. El área es atravesada por una carretera cuya plataforma se pretende ensanchar.

- 1.- Indicar la figura de protección adecuada para proceder a su protección según la ley de conservación de la naturaleza del País Vasco y su equivalencia con la legislación básica sobre patrimonio natural y biodiversidad, así como las figuras de protección teniendo en cuenta la legislación sobre patrimonio cultural de la CAPV. Administración competente en la gestión en cada caso.
- 2.- ¿Cuáles son los instrumentos de planificación que deben ser aprobados para la gestión del espacio natural? Contenido básico de los mismos.
- 3.- Realizar una propuesta de zonificación del espacio siguiendo la terminología utilizada en los ENP existentes en la CAPV.
- 4.- Análisis del sometimiento o no a evaluación de impacto ambiental del proyecto de ensanchamiento de la carretera y órgano que la lleva a cabo.
- 5.- Consideraciones de la legislación vasca sobre patrimonio cultural en caso de evaluación de impacto ambiental.

001540

PARTE 3

Una empresa vizcaína ha adquirido e instalado paneles solares fotovoltaicos para la generación y comercialización de la energía eléctrica producida mediante su incorporación a la red.

Dichos paneles solares fotovoltaicos han sido instalados en el tejado del pabellón industrial donde desarrolla toda su actividad. También han sido instalados en un terreno propiedad de dicha empresa en el que no realiza actividad alguna y fuera del recinto del pabellón industrial.

Se solicita analizar las medidas de fomento aplicables, con especial incidencia en las de fiscalidad sostenible.




PARTE 4

Proyectar una planta de Tratamiento Mecánico-Biológico (TMB) de residuos urbanos con valorización energética de los R.U. con una capacidad anual de tratamiento de 16.000 Tm.

Se pide:

- a) Explicar los procesos describiendo los esquemas del tratamiento de R.U., indicando los subproductos que se generan e identifica todos los "outputs" que produce la planta.
- b) Señalar gráficamente explicando los flujos de entrada y salida de la planta e indicar aproximadamente las fracciones de salida en porcentajes de los diferentes subproductos. Balance de masas con sus % respectivos.
- c) Señalar las aplicaciones del producto bioestabilizado explicando las fracciones que se generan gráficamente.
- d) Señalar las ventajas que tiene la planta de TMB acorde con el II Plan Integral de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016 dentro del escenario 2.
- e) ¿Qué condiciones exigirías a la impermeabilización del depósito de seguridad de la planta? Indicar mediante secciones la impermeabilización requerida.
- f) Conclusiones; justificando el proceso gráficamente, así como las Kcal/Kg de algunos productos en su valoración energética.

001547





Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

001542

Udal Harremanen eta
Herri Administrazioaren Saila
Departamento de Relaciones
Municipales y Administración Pública

1. KASU PRAKTIKOA

1. ZATIA

Udal batek jardunune bat garatu nahi du N-637 eta BI-635 errepideen gurutzagunetik hurbil. Kontuan hartuz gero eguneko tarte bakoitzean gaur egun dagoen presio akustikoa, errepideen ardatzetik 30 metrora, honako hau dela:

Errepidea	Leguna	Larratsaldea	Lgaua
N-637	56	58	48
BI-635	55	55	47

Honako hau eskatzen da:

- a) Zein izango litzateke soinu-presioa errepide bietatik 30 metrora soinu-presioko linea horiek biak gurutzatzen diren puntuan, eguneko tarte bakoitzean?
- b) Puntu horretan, gainditu egingo al lirateke legeria akustikoan etxebizitzetarako eskatzen diren kalitate akustikoko helburuak? Adierazi maila horiek.

Azterketa akustikoak aurrez ikusten du trafikoa hazi egingo dela, eta, beraz, kalitate akustikoko helburuak gaindituko dituzten soinu-presioaren mailak errepidetik 30 metrora hazi egingo direla; horrenbestez, 340 metro luze eta gehienez ere 3 metroko altuera duen pantaila akustiko bat diseinatu da. Honako hau eskatzen da:

- a) Diseinatu akustikaren gaineko zer baldintza eta zer kontrol ezarri behar zaizkion etxebizitzaren sustatzaileari pantailak kokatzeko.
- b) Ezaugarri akustikoak ebaluatzeko zer metodo eskatuko zenizkioke sustatzaileari pantailak definitzerakoan?

2. ZATIA

Bizkaiko ondo zaindutako eremu bat, Natura 2000 sarean sartuta ez dagoena, babestu nahi da. Horretarako, eremu horretako baliabideen ustiaketa mugatu nahi da, eta baimenduko den bakarra eremu horren ingurumen-balioak babesa izango da. Kostaldetik hurbil dagoen eremua da, gutxi gorabehera 500 Ha dituen. Bertan, abeltzaintza estentsiboko jarduera bat mantentzen da, eta horrek interes handia ematen dio paisaiari, haren elementuak ondo integratuta baitaude. Eremu berean megalitoak eta beste arkeologi aztarnategi batzuk ere badaude, bai eta Paleolitoko labar-artearen duen koba bat ere. Beste koba batzuetan, berriz, ferra-saguzar mediterraneoak daude. Halaber, ondo zaindutako landaredia dago (artadi kantauriarra). Eta bertan behera utzitako harrobi bat ere bai. Beste alde batean aparkatzeko lekuak eta mahaiak daude. Eremu hori guztia errepide batek zeharkatzen du, eta haren plataforma zabaldu egin nahi da.

- 1.- Adierazi, batetik, zein den eremu hori babesteko figura egokia Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren arabera; bestetik, zein den figura horrek ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legerian duen baliokidetasuna, eta, azkenik, zein diren ondare kulturalari buruzko EAEko legeriak zehazten dituen babes-figurak. Adierazi zein den kudeaketarako Administrazioa eskuduna kasu bakoitzean.
- 2.- Zein dira espazio naturalaren kudeaketarako onartu behar diren plangintza-tresnak? Tresna horien gutxienezko edukia adierazi.
- 3.- Espazioa zonifikatzeko proposamen bat egin. Horretarako, EAEn dauden espazio natural babestuetan erabili den terminologia jarraitu behar duzu.
- 4.- Adierazi errepidea zabaltzeko proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar den ala ez. Egin beharko balitz, adierazi zein organok egin beharko lukeen.
- 5.- Adierazi zer ezartzen duen ondare kulturalari buruzko euskal legediak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar denean.

3. ZATIA

Bizkaiko enpresa batek eguzki-panel fotovoltaikoak erosi eta instalatu ditu, haien bidez energia elektrikoa ekoizteko, eta, ondoren, energia elektriko hori sarean sartu eta merkaturatzeko.

Eguzki-panel fotovoltaiko horietako batzuk enpresak lan egiten duen industria-pabiloiaren teilatuan instalatu dira. Beste batzuk, berriz, enpresaren jabetzako lursail batean instalatu dira. Lursail hori industria-pabiloiaren esparrutik kanpo dago eta bertan ez da beste jarduerarik egiten.

Aztertu zein sustapen-neurri aplikatu daitekeen kasu honetan, eta batez ere fiskalitate iraunkorrekoak aztertu.

4.ZATIA

Hiri hondakinen Tratamendu Mekaniko-Biologikorako Instalazioa baten proiektua egin; instalazio horrek hiri hondakinen balorizazio energetikoa egingo du, eta urtean 16.000 tn tratatzeko ahalmena izango du.

Honako hau eskatzen da:

- a) Azaldu jarraitu diren prozesuak eta deskribatu hiri hondakinen tratamenduaren eskemak; adierazi zer azpiproduktu sortuko diren eta identifikatu lantegiak ekoitziko dituen *output* guztiak.
- b) Grafikoa egin eta azaldu lantegiak izango dituen sarrera- eta irteera-fluxuak, eta adierazi, gutxi gorabehera, irteeraren frakzioak, azpiproduktu bakoitzaren portzentajeetan neurtuta. Masen balantzea, bakoitza bere ehunekoarekin.
- c) Adierazi produktu bioegonkortuaren aplikazioak zein diren, eta grafikoki azaldu sortzen diren frakzioak.
- d) Adierazi Tratamendu Mekaniko-Biologikorako Instalazioak Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integralaren arabera, 2. aukeraren barruan, dituen abantailak.
- e) Azkenik, zer baldintza eskatuko zenituzke instalazioko segurtasun-biltegia iragazgaizteko? Adierazi, sekzioak erabiliz, zer iragazgaizte behar den.
- f) Ondorioak; prozesua grafikoki justifikatu, bai eta produktu batzuek beren balorizazio energetikoan dituzten Kcal/Kg ere.